

## MUSIKA-MÚSICAK EMAKUMEZKO DOZENA BAKARLARI NABARMEN BAINO GEHIAGO BILDUKO DITU 22. EDIZIOAN

- Besteak beste, Judith Jauregui pianojolea, Olatz Saitua, Ruth González eta Naroa Intxausti sopranoak, Danielle Akta txelo-jotzailea eta María Goiricelaya eszena-zuzendaria izango dira martxoaren 3tik 5era ospatuko den Jaialdian.
- “Notak & Letrak” izenburupean, programak Garai eta estilo artistiko desberdinako konpositoreen eta idazleen arteko elkarrizketa aztertuko du programak.

(Bilbao, 2023ko otsailaren 24a).- Naroa Intxausti eta Ainhoa Zubillagaren ahotsek hasiera emango diote martxoaren 3an, ostirala, Musika-Musica jaialdiaren 22. edizioari Arriaga Antzokian, Félix Mendelssohnen “**El Sueño de una Noche de Verano**” antzezlanaren emanaldian, Bilboko Koru Elkarteko emakumezkoen abesbatzarekin eta Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin (BOS) batera, Erik Nielsen zuzendari titulararen gidaritzapean. Martxoaren 3an, 4an eta 5ean “Notak & Letrak” izenburupeko Jaialdian entzungo diren lehen emakumezko ahotsak izango dira, musikan inspiratzen den literaturan, eta literaturan inspiratzen den musikari eskainitako edizioan.

Ostiralean bertan, Euskalduna Jauregiko 0E Aretoan, Ruth González sopranoak, Jan Antem baritonoarekin eta Ensemble Galdósekin batera, ‘El Teléfono’ obra antzeztuko du, Jaialdiak aurkezten duen lehengo opera, beste emakume baten, María Goiricelarrayaren, eszena-zuzendaritzapean. Antzeziana beste bi saiotan ere ikusi ahal izango da, larunbatean, 13:30ean eta 20:30ean.

Larunbateko programazioak, bestalde, izen propioak izango ditu: Joanna Freszel sopranoa, Mahlerren sol nagusiko 4.sinfonia interpretatuko duena Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoarekin batera; Judith Jáuregui pianojolea, Schumann, Liszt, Chopin eta Schuberten obrekin programa bat interpretatuko duena; Ana María Valderrama violinista, Luis Fernando Pérez pianojolearekin batera Debussy, Poulenc eta Manuel de Fallaren piezekin programa bati ekingo diona; Mariam Batsashvili pianojolea, Franz Liszt-i eskainitako programarekin; Cristina Esclápez pianojolea, Rafael Adobas txirulariarekin batera Debussy eta Reineckeren obrak interpretatuko dituena; Naroa Intxausti sopranoak ‘La poesía de Federeico García Lorca en la canción’ aurkeztuko du, Aurelio Viribayren laguntzarekin; Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak eta Itziar Barredo pianojoleak ‘Personajes femeninos de Goethe’ aztertuko dute Schubert, Berlioz, Mendelssohn eta Schumann artisten lanen bitartez; eta Olatz Saitua sopranoak eta Itxaso Sainz de la Maza pianojoleak ‘La poesía de Heine y la música de Sorozábal e Isasi’ jorratuko dute.

Igandean, Mariam Batsashvili pianojoleak programa berri bati ekingo dio, oraingoan Beethoven eta Schumannen lanekin. Era berean, Ana María Valderrama violin-jotzailea, Luis Fernando Pérez pianojolearekin batera (Brahmsi eskainitako programarekin), eta Cristina Esclápez pianojolea, Rafael Adobas txirularia batera igoko dira agertokira,

Schubert, Carter eta Joliveten obrak interpretatzeko. Gainera, **Irene Palazón** sopranoak, Bilboko Koral Elkartearekin eta Galiziako Orkestra Sinfonikoarekin batera, Carl Orffen ‘Carmina Burana’ kantata interpretatuko du; **Danielle Akta** biolontxelo-jotzaile gazteak, Israel Chamber Orchestrarekin batera, Skalkottas, Chaikovski eta Tsintsadzeren piezak interpretatuko ditu, eta **Gurutze Beitia** aktorea izango da ahots errexitatzailea, saio batean, ‘Ramuntcho’ (G. Pierné), ‘Othello’ (A. Reed) eta ‘Viento del pueblo’ (J. E. Canet) lanekin.

Zineari eskainitako saioetan **Patricia Sojo musikologoa** eta Cesar Coca kazetaria izango dira.

## 70 KONTZERTUKO MARATOIA

Martxoaren 3tik 5era, “Notak & Letrak” izenburuean, Jaialdiaren 22.edizioan zehar ibiliko diren musikaren eta literaturaren arteko elkarrizketak izango dira, besteak beste, Beethoven, Liszt, Chaikovski, Purcell, Schubert, Schumann, Bizet, Strauss eta Marais konpositoreen lanen bitartez, eta Byron, Virgilio, Goethe, Ibsen, Ovidio, Cervantes, Shakespeare eta Tolstoi literaturagileenak.

Horrela, **musika berriro entzungo da Bilbon, ohiko maratoi formatuan, hiru egunetan 70 kontzertu baino gehiago eskainiz**. Euskalduna Jauregiak, bestalde, programazio honen zatirik handiena hartuko du, **45 minutuko emanaldiekin**. Emanaldiak areto ezberdinetan izango dira aldi berean. Horrela, publikoak genero desberdinen interpretazioen katalogo zabala izango du, hala nola ganbera-musika, Israelgo ganbera-orkestraren, Ensemble Masquesen, Anima Musicae (Budapest) orkestraren eta Gerhard, Signum edo Mandelring laukoteen emanaldiekin, besteak beste.

Auditorioan kontzertu sinfonikoak bilduko dira, **Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Koral Elkartea, Galiziako Orkestra Sinfonikoa, Gazzela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa eta Granadako Orkestra Sinfonikoa** bezalako orkestra handien eskutik.

Ibilbideko artisten errezialdiak, aldi berean, Euskaldunako hainbat aretotan entzungo dira eta **‘Kiosko’** izeneko guneak **interprete gazteen** emanaldiak jasoko ditu.

## SARREREN SALMENTA

Sarreren samenta eskuragarri dago jada:

- Euskalduna Jauregiko leihatilan: astelehenetik larunbatera, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
- [www.euskaduna.eus](http://www.euskaduna.eus) webgunean.
- Jaialdiaren egoitzan, ‘La Perrera’ eraikinean (Sabino Arana, 50): astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 17:00etara, martxoak 2ra arte (ordainketa txartelarekin bakarrik).
- Kutxabankeko kutxazainetan.

- Taldentzako salmenta esklusiboa (50 sarreratik gorako erosketak): 94 403 51 80 telefonora deitura edo [groups.euskalduna@gmail.com](mailto:groups.euskalduna@gmail.com) helbidera idatzita.

Sarreren prezioak:

- Euskalduna Jauregiko Auditorioa: 13 euro.
- 0B Gela: 11 euro.
- Gaintzeko gelak: 8 euro.
- Kioskorako sarrera bakarrik: 4 euro.

## **SARE SOZIALAK:**

- **BILBOKO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **MUSIKA MUSICA:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

Informazio gehiago: <https://musika-musica.bilbao.eus/>

## MUSIKA-MÚSICA REÚNE A MÁS DE UNA DOCENA DE MUJERES SOLISTAS DESTACADAS EN SU 22<sup>a</sup> EDICIÓN

- Artistas como la pianista Judith Jáuregui, las sopranos Olatz Saitua, Ruth González y Naroa Intxausti, la chelista Danielle Akta y la directora escénica María Goiricelaya formarán parte de un Festival que se celebrará entre el 3 y el 5 de marzo.
- Bajo el título “Notak & Letrak” el programa explorará el diálogo entre compositores y escritores de diversas épocas y estilos artísticos.

(Bilbao, a 24 de febrero de 2023).- Las voces de **Naroa Intxausti y Ainhoa Zubillaga** abrirán, el viernes 3 de marzo, la 22<sup>a</sup> edición de Musika-Música en el Teatro Arriaga, en una representación de “**El Sueño de una Noche de Verano**” de Félix Mendelssohn junto al coro femenino de Sociedad Coral de Bilbao y la Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS), bajo la batuta de su director titular, Erik Nielsen. Serán las primeras voces femeninas que sonarán en una edición del festival que se celebrará el 3, 4 y 5 de marzo con el título “Notak& Letrak”, dedicado a la música que se inspira en la literatura y la literatura que se inspira en la música.

El mismo viernes, en la Sala 0E del Palacio Euskalduna, la soprano **Ruth González** protagonizará también, junto al barítono Jan Antem y Ensemble Galdós, la obra “**El Teléfono**”, la primera ópera que presenta el festival, en una producción propia bajo la dirección de escena de otra mujer, María Goiricelaya. La obra podrá verse, además, en otras dos sesiones el sábado, a las 13:30 horas y a las 20:30 horas.

La programación del sábado, por su parte, contará con nombres propios como el de la soprano **Joanna Freszel**, que interpretará la Sinfonía nº4 en sol mayor de Mahler junto a la Orquesta Sinfónica de Castilla y León; la pianista **Judith Jáuregui**, que interpretará un programa con obras de Schumann, Liszt, Chopin y Schubert; la violinista **Ana María Valderrama**, que junto al pianista Luis Fernando Pérez acometerá un programa con piezas de Debussy, Poulenc y Manuel de Falla; la pianista **Mariam Batsashvili**, con un programa dedicado a Franz Liszt; la pianista **Cristina Esclápez**, que junto al flautista Rafael Adobas interpretará obras de Debussy y Reinecke; la soprano **Naroa Intxausti**, que abordará “La poesía de Federico García Lorca en la canción” con el acompañamiento al piano de Aurelio Viribay; la mezzosoprano **Ainhoa Zubillaga** y la pianista **Itziar Barredo**, que explorarán los “Personajes femeninos de Goethe” a través de obras de artistas como Schubert, Berlioz, Mendelssohn y Schumann; y la soprano **Olatz Saitua** y la pianista **Itxaso Sainz de la Maza**, que abordarán “La poesía de Heine y la música de Sorozábal e Isasi”.

El domingo, la pianista **Mariam Batsashvili** abordará un nuevo programa, esta vez con obras de Beethoven y Schumann. También subirán de nuevo a escena la violinista **Ana María Valderrama**, junto al pianista Luis Fernando Pérez, con un programa dedicado a Brahms, y la pianista **Cristina Esclápez**, junto al flautista Rafael Adobas, que interpretarán obras de Schubert, Carter y Jolivet. Además, la soprano **Irene Palazón**, junto a la Sociedad

Coral de Bilbao y la Orquesta Sinfónica de Galicia, interpretará la cantata “Carmina Burana” de Carl Orff la joven violonchelista **Danielle Akta**, acompañada de la Israel Chamber Orchestra, interpretará piezas de Skalkottas, Chaikovski y Tsintsadze, y la actriz **Gurutze Beitia** será la voz recitante en una sesión con las obras “Ramuntcho” (G. Pierné), ‘Othello’ (A. Reed) y ‘Viento del pueblo’ (J. E. Canet).

Las sesiones dedicadas al cine contarán con la presencia de la **musicóloga Patricia Sojo**, que junto al periodista César Coca.

## MARATÓN CON 70 CONCIERTOS

Serán algunos de los distintos diálogos entre música y literatura que, del 3 al 5 de marzo, con el título de “Notak & Letrak”, recorrerán la 22<sup>a</sup> edición del Festival a través de las obras de compositores como Beethoven, Liszt, Chaikovski, Purcell, Schubert, Schumann, Bizet, Strauss o Marais entre otros, y las de literatos como Byron, Virgilio, Goethe, Ibsen, Ovidio, Cervantes, Shakespeare o Tolstoi.

Con ello, **la música volverá a sonar en Bilbao, en el habitual formato de maratón, con más de 70 conciertos en tres días**. El Palacio Euskalduna acogerá el grueso de esta programación, con **actuaciones de unos 45 minutos** cada una, que tendrán lugar en diferentes salas de forma simultánea. De esta manera, el público podrá disfrutar de un amplio catálogo de interpretaciones de géneros, como la música de cámara; con las actuaciones de la orquesta de cámara de Israel, el Ensemble Masques, la orquesta Anima Musicae de Budapest o los cuartetos Gerhard, Signum o Mandelring.

El Auditorio, por su parte, concentrará los conciertos sinfónicos, a cargo de grandes orquestas como la **Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra, la Orquesta Sinfónica de Navarra, la Sociedad Coral de Bilbao, la Orquesta Sinfónica de Galicia, la Orquesta Sinfónica de Castilla y León y la Orquesta Sinfónica de Granada**.

Los recitales de artistas de trayectoria sonarán, a su vez, en distintas salas del Euskalduna, que acogerá también a **jóvenes intérpretes** en el espacio denominado **“Kiosko”**.

## VENTA DE ENTRADAS

La venta de entradas está ya disponible:

- En las taquillas del Palacio Euskalduna: de lunes a sábado, de 12:00 a 14:00 horas y de 17:00 a 20:00 horas.
- En la página [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus)
- En la sede del Festival, en el edificio ‘La Perrera’ (Sabino Arana, 50): de lunes a viernes, de 12:00 a 17:00 horas, hasta el 2 de marzo (pago solo con tarjeta).
- En cajeros multiservicio Kutxabank
- Venta exclusiva para grupos (compras superiores a 50 entradas): a través del teléfono 94 403 51 80, [groups.euskalduna@gmail.com](mailto:groups.euskalduna@gmail.com)

Los precios de las entradas serán:

- Auditorio del Palacio Euskalduna: 13 euros
- Sala 0B: 11 euros
- Resto de salas: 8 euros.
- Para acceso exclusivamente al “Kiosko”: 4 euros.

## **REDES SOCIALES**

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **MUSIKA MUSICA:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

Más información: <https://musika-musica.bilbao.eus/>